5844

AGINDUA, 2008ko irailaren 30ekoa, Kultura sailburuarena, Ukan Publizitate Sariaren 2008ko deialdia egiten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuan ezartzen denez, Kultura Sailaren zeregina da, besteak beste, hizkuntza-politika eta euskararen sustapena. Horren haritik, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren 16. artikuluak bere 2.b) puntuan honako zeregin hau jartzen dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren baitako Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari: euskarak edozein gizarte-arlotan duen erabileraz edo bizi duen egoeraz gizartea sentiberatzeko kanpainak edo neurriak garatzea eta koordinatzea.

Aurreko hori lortze aldera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, bere egitekoen haritik, hainbat neurri hartu ditu eta, ondorioz, urratsak egin euskararen normalizazioaren bidetik. Horiei kalterik egin gabe, esparru jakin batean eragitea nahi du: publizitatearen esparruan hain zuzen ere.

Eragite-ahalegin horrek oinarri sendoa du: batetik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2009 legealdirako onartutako egitasmoa; bestetik Euskararen Aholku Batzordeak (EAB) 2004an euskararen kalitateaz egindako gomendioa. Bietatik lehenari dagokionez, zera dio 9. jardunbide nagusiak: euskaraz landutako eta plazaratutako kalitatezko ekarpenak bikaintasunaren irizpideen arabera bultzatu eta babestuko direla. Hogeita hamahirugarren jardunbideak, bestalde, euskararen kalitatea bermatu eta gordetze aldera EABk markaturiko ildoak landuko direla azpimarratzen du. Euskararen kalitatea dela-eta, honako proposamen hau egin zuen, besteak beste, Euskararen Aholku Batzordeak: iragarle euskaldunak (eta batez ere erakundeak) ohartarazi ezinbesteko dela euskararen presentzia hasiera-hasieratik bermatzea publizitate-prozesuetan. Orobat ohartarazi publizitatearen zuzentasuna eta jatortasuna egokitasunaren zerbitzuan daudela beti, eta ez alderantziz.

Bi oinarri horiek gogoan izanik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, gerora publizitatearen esparruan har daitezkeen beste zenbait neurri landu eta hartzeari utzi gabe, Ukan Publizitate Saria sortu zuen 2007ko urriaren 31ko Aginduaren bidez (azaroaren 20ko EHAA, 223. zk.).

Hori guztia kontuan izanik, honako hau.

5844

ORDEN de 30 de septiembre de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se convoca la edición correspondiente a 2008 del Premio Ukan Publizitatea.

El Decreto 8/2005 de 27 de junio, de creación, supresión y modificación de los departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, asignó al Departamento de Cultura, entre otras, las relativas a la política lingüística y la promoción del euskera. Al hilo de lo anterior, el artículo 16.2.b) del Decreto 25/2006, de 14 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura, asigna la siguiente función a la Dirección de Promoción del euskera de la Viceconsejería de Política Lingüística: el desarrollo y coordinación de campañas o medidas dirigidas a la sensibilización social relativas al uso o situación del euskera en cualquier ámbito social.

Para conseguir tal fin, la Viceconsejería de Política Lingüística, al hilo de su función encomendada, ha tomado numerosas medidas y, consecuentemente, encaminado sus pasos por la senda de la normalización del euskera. Sin perjuicio de ello, quiere incidir en un nuevo campo: en el ámbito de la publicidad.

Dicho intento de incidir tiene una base firme: por un lado, el proyecto aprobado para la legislatura 2005-2009 por la Viceconsejería de Política Lingüística; por otro lado, la recomendación realizada en el 2004 por el Consejo Asesor del Euskera sobre la calidad del euskera. En referencia al primero de los dos, la línea de actuación novena apunta la necesidad de fomento y amparo, con arreglo a criterios de excelencia, de las aportaciones de calidad elaboradas y puestas en circulación en euskera. Por otro lado, la línea de actuación número treinta y tres subraya la necesidad de profundizar en las líneas de trabajo marcadas por el Consejo Asesor del Euskera, en orden a garantizar y preservar la calidad del euskera. En referencia a lo anterior, el Consejo Asesor del Euskera, entre otras, hizo esta propuesta: hacer ver a las empresas anunciantes vascas (en especial a las instituciones) que es necesario garantizar la presencia del euskera desde el inicio mismo de los procesos publicitarios. Así mismo, hacerles ver también que en publicidad, tanto la corrección como el casticismo ha de estar siempre al servicio de la propiedad y no al revés.

Tomando en consideración estos dos fundamentos, el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco decidió, sin dejar de lado otras medidas futuras en el campo de la publicidad, crear el Premio Ukan Publizitatea mediante la Orden de 31 de octubre de 2007 (BOPV n.º 223, de 20 de noviembre de 2007).

En su virtud,

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Agindu honen xedea.

Agindu honen xedea Ukan Publizitate Sariaren 2008ko deialdia egitea da.

2. artikulua.– Ukan Publizitate Sariaren xedea.

Ukan Publizitate Sariak honako xede hau du: produktu edo zerbitzu bat irrati, telebista, egunkari, aldizkari edo Internet bidez zabaltzeko asmoz ekoiztutako euskarazko publizitate-iragarki onena aintzat hartu eta saritzea. Hori egite aldera, iragarkiaren hizkuntza-erabilera baino ez da gogoan hartuko, hau da egokitasuna, zuzentasuna eta jatortasuna.

3. artikulua.– Hautagaiak eta onuraduna.

1.– 2008ko urtarrilaren 1ean hasi eta urte bukaera bitartean edozein hedabidetan pertsona juridiko pribatuek euren produktu edo zerbitzuak iragartzeko asmoz argitara edo zabaldutako publizitate-iragarkiak dira Ukan Publizitate Sariaren hautagai. Onuraduna, hortaz, saritzea erabaki den publizitate-iragarkiaren sustatzailea den pertsona juridiko pribatua izango da, ez ordea publizitate-iragarkia sortu edo zabalkundea egin duena.

2.– Saria jasotzeko eskubidea galduko dute -eta, hala badagokio, jasotako diru-kopurua itzuli beharko dute- diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin administratiboki edo penalki zigortutakoek, bai eta horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekurik dutenek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrena urratuz sexu-diskriminazioa egiteagatik debeku horrekin zigortuta daudenak barne.

4. artikulua.– Sariaren ezaugarriak.

1.– Ukan Publizitate Saria sei mila (6.000,00) euro gordinez hornituta dago.

2.– Saria bakarra da eta, hortaz, zatiezina.

3.– Nolanahi ere, Ukan Publizitate Sariak bi osagai daramatza itsatsirik: batetik, berariazko agiria; bestetik, hemezortzi mila (18.000,00) euro gordineko gehigarria, gehienez. Gehigarri hori, onuradunak saritutako iragarkiaren zabalkundeari berriro ekin diezaion izango da edo, nahi izanez gero, iragarki berria egin eta zabal dezan, saria hartu eta beranduenik ere, urte beteko epean, beti ere 11. artikuluan zehaztutako betebeharrei jarraituz.

5. artikulua.– Sariaren kudeaketa.

Kultura Saileko Euskara Sustatzeko zuzendariari dagokio deialdi honen kudeaketa-lanak egitea.

6. artikulua.– Epaimahaia eta hautaketa-bidea.

1.– Ukan Publizitate Saria nori eman erabakitzeko epaimahai bat eratuko da.

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto de la Orden.

Es objeto de la presente Orden convocar la edición correspondiente a 2008 del Premio Ukan Publizitatea.

Artículo 2.– Objeto del Premio Ukan Publizitatea.

El premio Ukan Publizitatea tiene por objeto tomar en consideración y premiar el mejor anuncio publicitario en euskera creado con intención de difundir un servicio o producto en prensa, publicaciones periódicas, televisión o radio. Para su fin, sólo se tendrá en cuenta el uso lingüístico del anuncio, es decir, su propiedad, corrección y casticismo.

Artículo 3.– Candidatos y entidad beneficiaria.

1.– Son candidatos al Premio Ukan Publizitatea los anuncios publicitarios difundidos o publicados por personas jurídicas privadas, al objeto de dar a conocer sus servicios o productos, en cualquier medio de comunicación entre el 1 de enero de 2008 y la entrada en vigor de esta Orden. La entidad beneficiaria, por otra parte, será aquella persona jurídica privada que haya promovido el anuncio publicitario objeto del presente premio, y no la responsable de la creación publicitaria y de su difusión.

2.– Constituirá supuesto de pérdida del derecho al premio y obligación, en su caso, de devolución de las cantidades percibidas, el haber sido sancionado o sancionada administrativamente o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o hallarse incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Artículo 4.– Características del Premio.

1.– El Premio Ukan Publizitatea está dotado con seis mil (6.000,00) euros brutos.

2.– El Premio Ukan Berrikuntza es único e indivisible.

3.– No obstante, el premio Ukan Publizitatea lleva parejos dos complementos. Por una parte, un diploma acreditativo; por otra, un complemento económico de dieciocho mil (18.000,00) euros brutos, como máximo, para que la entidad beneficiaria vuelva a difundir el anuncio premiado o, si así lo desea, realice un nuevo anuncio y lo difunda, a lo más tardar, en el plazo de un año, siempre cumpliendo las obligaciones estipuladas en el artículo 11.

Artículo 5.– Gestión del Premio.

La gestión del Premio Ukan Berrikuntza corresponde al director de Promoción del Euskera del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Artículo 6.– El jurado y modo de elección.

1.– Se contará con un jurado para decidir a quién corresponde el Premio Ukan Publizitatea.

2.– Epaimahai horretako kideak honako hauek izango dira:

a) Epaimahaiburua, Hizkuntza Politikarako sailburuordea.

b) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskara Sustatzeko zuzendaria.

c) Kultura Saileko Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendaria edo berak izendatutako ordezkoa.

d) Kultura Saileko Zerbitzu zuzendaria edo berak izendatutako ordezkoa.

e) Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari atxikitako funtzionario bat, idazkari lanetan arituko dena. Iritzia eman ahal izango du, baina botorik ez.

3.– Epaimahaiaren osaeraren berri Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango da, Hizkuntza Politikarako sailburuordearen Ebazpen baten bitartez.

4.– Epaimahaiko kideek abstenitu egin beharko dute eta errefusatu ahal izango dute Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

5.– Sarituaren hautaketa epaimahaiak eginkizun horretarako antolatutako lan-bilera(k) eginez eta balorazioorako kontuan harturiko irizpideei jarraituz egingo da.

6.– Bilera-deia idatziz egingo da. Bilera-idazkiak tokia, eguna eta ordua zehaztuko ditu. Ordua dela-eta, bi deialdi egingo da: lehenengoa jarritako orduan egingo da; bigarrena, berriz, lehenengoa egin eta ordu erdira. Lehenengoa egiten den unean epaimahaikide guztiak ez badira bertaratu, bigarren deialdia egingo da. Artez eta moldez eratutzat jotzeko, une horretan mahaikideen herenak egon beharko du bertan.

7.– Epaimahaiak gehiengo soilaz erabakiko du Ukan Publizitate Saria nori eman, eta quoruma izateko epaimahaikide erdiek gehi batek egon beharko dute. Hainbanaketa gertatuz gero, epaimahaiburuak erabakiko du kalitatezko botoz.

8.– Beharrezkotzat jotzen badu, epaimahaiak publizitatean adituak direnen aholkularitza jaso ahal izango du.

9.– Aztertu beharrekoak aztertu eta hautaketa-irizpideak aplikatu ondoren, epaimahaiak saria nori eman proposatuko dio Kultura sailburuari. Proposamenak hartutako akordioa justifikatzen duten arrazoiak azalduko ditu, eta, era berean, saritutako publizitate-iragarki horren jabe den enpresa-iragarlearen ahaleginaren esanahiaz egiten duen balorazioa ere jasoko du.

10.– Epaimahaiak proposamena ez egitea erabaki ahal izango du, epaimahaikide gehiengo soilaren ustez, saria jasotzea merezi duen hautagairik ez badago.

2.– Serán miembros del jurado las personas siguientes:

a) Presidente del jurado, el Viceconsejero de Política Lingüística.

b) El Director de Promoción del Euskera de la Viceconsejería de Política Lingüística.

c) La Directora del Gabinete y Medios de Comunicación Social del Departamento de Cultura.

d) El Director de Servicios del Departamento de Cultura o persona sustituta nombrada por él.

e) Un funcionario adscrito a la Dirección de Promoción del Euskera, quien realizará funciones de secretario. Tendrá voz, pero no voto.

3.– La composición del jurado se hará pública mediante la inserción en el Boletín Oficial de País Vasco de la Resolución del Viceconsejero de Política Lingüística.

4.– Según los términos previstos en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas, los miembros del jurado deberán abstenerse y podrán sen recusados.

5.– La elección de la persona jurídica privada premiada se llevará a cabo siguiendo los criterios establecidos para la valoración en cuantas reuniones de trabajo sean oportunas.

6.– La convocatoria de reunión se realizará por escrito. La convocatoria recogerá el lugar, día y hora de la reunión. En referencia a la hora se harán dos convocatorias: la primera se hará a la hora indicada; la segunda, en cambio, al de media hora de la primera. Si en el momento de la primera convocatoria no se encuentran todos los miembros del jurado, se realizará la segunda. Para que se dé por constituida formalmente, tendrá que asistir un tercio de los miembros del jurado.

7.– El jurado decidirá por mayoría simple a quién conceder el Premio Ukan Publizitatea. Para poder llevar a cabo la votación se requerirá la presencia de la mitad más uno de los miembros del jurado. En caso de empate decidirá el presidente del jurado con su voto de calidad.

8.– Si el jurado lo considera necesario, podrá recibir asesoramiento de personas entendidas en publicidad.

9.– Una vez analizadas las propuestas y aplicados los criterios, el jurado propondrá a la Consejera de Cultura a quién conceder el premio. Para ello, expondrá las razones que justifiquen dicha propuesta, y del mismo modo, recogerá la valoración que se hace sobre el significado del esfuerzo de la empresa anunciante.

10.– El jurado podrá dejar el premio desierto, si en opinión de la mayoría simple no hay candidato que merezca el premio.

7. artikulua.– Hautaketa-irizpideak.

Erabaki-proposamena hartzeko, epaimahaiak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

a) Egokitasuna.

b) Zuzentasuna.

c) Jatortasuna.

8. artikulua.– Erabakia.

1.– Epaimahaiaren proposamena ikusirik, Kultura sailburuak dagokion erabakia hartuko du.

2.– Erabakia hartu aurretik, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak saritzea proposatu den publizitate-iragarkiaren sustatzaile den pertsona juridiko pribatuarengana joko du idatziz onespen eske eta, ondorioz, saritu nahi den pertsonak, saria onartzekotan, saria onartu egiten duela adieraziko dio esandako Zuzendaritzari, hartarako jasoko duen berariazko idazki baten bidez. Idazki berean, diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren baten edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen baten menpe ez dagoela eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela bide zigortuta ez dagoela egiaztatzen duen zinpeko aitormena egin beharko du saritzea proposatzen den pertsonak.

3.– Erabakia agindu hau indarrean jarri eta bost hilabeteko epean emango da, gehienez. Adierazitako epean ebazpen zehatzik emango ez balitz, saririk ez dela emango ulertuko da.

4.– Erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

9. artikulua.– Sari-banaketa.

Ukan Publizitate Saria ageriko ekitaldi batean emango da. Ekitaldi horretarako deia Kultura sailburuak egingo du.

10. artikulua.– Ordainketak.

1.– Emandako sariaren ordainketa, sei mila (6.000,00) eurori dagokiona, Ukan Publizitate Saria emateko berariaz antolatutako ekitaldian egingo da.

2.– Ukan publizitate sariari itsatsitako gainontzeko gehigarriaren ordainketa, gehienez ere, hemezortzi mila (18.000,00) eurori dagokiona, saritutako iragarkiaren zabalkundeari berriro ekin ostean edo, nahi izanez gero, iragarki berria egin eta zabaldu ostean egingo da. Hori dela-eta, edozein delarik ere aukeratutako bidea, gastuen faktura originalak aurkeztu behar dira justifikazio gisa. Faktura horien zenbatekoa hemezortzi mila (18.000,00) eurotik gorakoa bada, onuradunak kopuru hori bestekoa baino ez du hartuko. Aldiz, hemezortzi mila (18.000,00) eurotik beherakoa bada justifikatutakoa bestekoa.

Artículo 7.– Criterios de elección.

El jurado tendrá en cuenta los siguientes criterios para hacer la propuesta:

a) Propiedad.

b) Corrección.

c) Casticismo.

Artículo 8.– Resolución.

1.– Una vez vista la propuesta del jurado, la Consejera de Cultura adoptará la correspondiente resolución.

2.– Antes de adoptar dicha resolución, la Dirección de Promoción del Euskera se dirigirá por escrito a la persona jurídica privada titular que haya promovido el anuncio publicitario premiado al objeto de recabar su aceptación. En consecuencia, la persona jurídica privada a quien se quiere premiar, en caso de aceptar el premio, comunicará por escrito a la Dirección de Promoción del Euskera su aceptación, utilizando para ello un documento específico que le será facilitado. En tal escrito la entidad beneficiaria tendrá que acreditar mediante declaración jurada que no se encuentra incursa en prohibición legal alguna que le inhabilite para la obtención de subvenciones o ayudas y que no ha sido sancionada por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

3.– La resolución se adoptará en el plazo máximo de cinco meses desde que surta efectos la presente Orden. Si en el plazo establecido no se adoptara resolución alguna, se entenderá que el premio queda desierto.

4.– La resolución será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 9.– Entrega del Premio.

La entrega del Premio Ukan Publizitatea se llevará a cabo en un acto público convocado por La Consejera de Cultura.

Artículo 10.– Pago del Premio.

1.– El pago del premio otorgado, esto es, el correspondiente a seis mil (6.000,00) euros, se realizará en el acto público organizado expresamente para la entrega del Premio Ukan Publizitatea.

2.– El pago correspondiente al complemento económico por un máximo de dieciocho mil (18.000,00) euros se realizará una vez realizada la difusión del anuncio premiado, o si se quiere, una vez realizado y difundido el anuncio nuevo. Independientemente de la modalidad elegida, se presentarán las facturas originales de los gastos a modo de justificación. Si el importe de dichas facturas es superior a dieciocho mil (18.000,00) euros, la persona jurídica privada beneficiaria solamente recibirá la cantidad mencionada. Si, por el contrario, es inferior a dieciocho mil (18.000,00) euros, la cantidad a percibir será equivalente al importe total de lo justificado.

11. artikulua.– Sarituaren betebeharrak.

1.– Saria onartzea.

2.– Sari banaketaren ekitaldian parte hartzea.

3.– Sariari itsatsitako gehigarria, gehienez ere, hemezortzi mila (18.000,00) euro gordinekoa alegia, iragarkiaren zabalkunderako edo iragarki berria egiteko erabiltzea. Zabalkundeari berriro ekitekotan, baldin eta inprimatutako iragarkia bada, iragarki hori, gutxienik, bi hedabidetan argitaratu beharko da. Ikus entzunezkoaren kasuan edozein hedabidetan zabaldu ahal izango da.

4.– Sariari itsatsitako gehigarria jaso ahal izateko egindako gastuaren zuriketa aurkeztea.

5.– Giza eskubideak eta bizikidetzaren gizalegezko balioak errespetatzea.

6.– Adierazpen- eta informazio-askatasunari begirunea erakustea. Horretarako, nork bere deontologiako arauak beteko ditu eta, aldi berean, politika-aniztasuna eta politika-, gizarte- eta kultura-taldeei zor zaien aukera-berdintasuna bermatuko duen informazio, egiazkoa eta objektiboa sustatuko du.

7.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutakoari jarraituz, hizkera sexistarik ez erabiltzea, eta gizonen eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez egitea.

12. artikulua.– Betebeharrak ez betetzea.

Agindu honetan finkatutako edozein betebehar zein beste edozein xedapenetan jasota egonik deialdi honi ezargarri izan dakiokeena betetzen ez bada, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan ezarritakoari ekingo zaio eta, hala badagokio, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoari.

13. artikulua.– Publizitate-erabilera.

Ukan Publizitate Sariaren onuradunak jasotako sariaren aipamena egin eta publizitate gisa erabili ahal izango du.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Agindu honetako euskarazko eta gaztelaniazko idazkien artean interpretazio-auzirik sortuko balitz, euskaraz idatzitakoa hartuko da aintzat.

Bigarrena.– Agindu honetan aurreikusi gabeko guztiari dagokionez Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Bere aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal diote Kultura sailburuari hilabeteko epean, EHAAn argitaratu

Artículo 11.– Obligaciones de la persona jurídica privada premiada.

1.– Aceptar el premio.

2.– Participar en el acto público de entrega.

3.– Emplear el complemento económico, por un importe máximo de dieciocho mil (18.000,00) euros brutos, en la redifusión del anuncio o en la creación y difusión de uno nuevo. En el caso de la redifusión del anuncio, si se trata de un anuncio impreso, tal anuncio, aparecerá, como mínimo, en dos medios de comunicación. En caso de ser un anuncio audiovisual, se podrá difundir en cualquier medio de comunicación.

4.– Presentar la justificación del gasto realizado para poder percibir el complemento económico.

5.– Respetar los derechos humanos y los valores de convivencia.

6.– Respetar la libertad de expresión e información. Para ello, cumplirán su propio código deontológico y, al mismo tiempo, promocionarán la pluralidad política y la información objetiva y verídica que garantice la igualdad de oportunidades de los distintos colectivos políticos, sociales y culturales.

7.– En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de hombres y mujeres, no utilizar lenguaje sexista. En cuanto a los roles de hombres y mujeres, garantizar que no haya usos estereotipados.

Artículo 12.– Incumplimientos.

Si se da incumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Orden o de aquellas establecidas con carácter general en cualquier otra disposición, se aplicará lo establecido en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y en su caso, en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre.

Artículo 13.– Uso publicitario.

La persona jurídica privada galardonada con el Premio Ukan Publizitatea podrá hacer mención del premio recibido y utilizarlo a modo de publicidad.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– De surgir en esta Orden algún problema de interpretación entre los textos en euskera y castellano, se adoptará el texto en euskera como referencia para solucionar dicha eventualidad.

Segunda.– En todo lo no previsto en la presente Orden será de aplicación supletoria la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Tercera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las entidades interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del día

eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 30a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

DISPOSICIÓN FINAL

La Presente Orden surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de septiembre de 2008.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.